


Euskal AEko industria-prezioak % 0,9 igo dira 2021eko urtarrilean aurreko hilaren aldean

2020ko urtarrilaren aldean, industria-prezioek % 1,2 egin dute behera

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,9 igo dira 2021eko urtarrilean aurreko hilaren aldean. Urtarrileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza biltzen duena) -% 1,2koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2021eko urtarrilean, aurreko hilaren aldean, prezioetan hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Kokeriak eta petrolioaren finantza* (% 5,3ko igoera), *Material eta ekipoen fabrikazioa* (% 2,4ko igoera) eta *Botiken fabrikazioa* (% 2,2ko igoera). Aitzitik, hilabete artean prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Ura* (% 1,7ko jaitsiera) eta *Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria* (% 0,1eko murrizketa).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketa guztiek zeinu positiboa izan dute: *Energiarenak* % 2,9 igo dira, *Ekipo-ondasunenak* % 0,6 eta *Bitarteko ondasunenak* % 0,5. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, oro har, % 0,1 igo dira aurreko hilaren aldean, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektorean % 0,3 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* azpisektorean, berriz, % 0,1.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021ko Urtarrila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021urt / 2020abe	2021urt / 2020urt
INDIZE OROKORRA	103,0	0,9	-1,2
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	109,0	2,1	1,0
Manufaktura-industria	104,2	1,0	-0,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,9	-0,1	2,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,2	0,6	-4,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	103,7	1,1	-1,5
Kokeak eta petrolioaren fintzen	95,8	5,3	-15,6
Industria kimikoa	110,1	0,8	1,2
Botiken fabrikazioa	112,4	2,2	0,9
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,1	0,1	0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	104,8	0,7	2,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	109,5	1,7	6,6
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	107,2	2,4	2,7
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,5	0,1	-4,2
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,9	0,0	1,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,8	0,3	0,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	94,9	0,4	-2,8
Ura	107,6	-1,7	0,9
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	107,7	0,1	2,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,7	0,3	1,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	108,2	0,1	3,0
Ekipa-ondasunak	108,7	0,6	-0,3
Bitarteko ondasunak	103,7	0,5	1,7
Energia	95,4	2,9	-10,2

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2021eko urtarrila 2020koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak adar hauetan gertatu dira: *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak fabrikatzea* (% 6,6ko igoera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 2,9ko igoera) eta *Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa* (% 2,7ko igoera). Prezioen jaitsierarik handienak, aldiz, honako sektore hauei dagozkie: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 15,6ko jaitsiera), *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 4,2 behera egin duena) eta *Jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,0 behera).

Helburu ekonomikoaren arabera kontsumo-ondasun-talde handien prezioek urte arteko aldiaren izan duten aldakuntza positiboa izan da *Kontsumo-ondasunentzat* oro har, % 2,7ko igoera izan baitute; izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 3,0 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak*, % 1,4. *Bitarteko ondasunenak*, berriz, % 1,7 igo dira. Urte artean, aldiz, *Energiak* % 10,2 egin du behera prezioetan eta *Ekipa-ondasunek*, % 0,3.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62